


**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
28n. ZENBAKIA
URTARRILLA
-1980-**



MUNGIA'N SAN ANTONTXU EGUNA



70 urte Bizkaiari laguntzen



CAJA DE AHORROS 
MUNICIPAL DE BILBAO
ONDO ERANTZUTEN DAU

ALDIAK AURRERA

ITXAROPENA

Urte barria etorri jaku eta pozez, itxaropenez, artu dogu. Gaberdian gure kaleetan izan diran zaratak eta dunbadak ori diñoskue beintzat.

Urteak joan, urteak etorri, aurrera doa gure bizia eta gure erriarena. Ondo igaroak poztu egiten gaitu, baiña urteak joanak izateak eta zartzarorantza oinkadak emoteak ez gaitu poztuten batez be gaztaro pozgarria igaro dogunoi.

Dana dala, gure bizitzea ta gure erriarena aurrera doaz, urte pozgarriak eta samiñak igaroz.

* * *

IGAZ

Begiratu dagigun joan jakun urte zarra eta lenago igaro diranen aurrean ipiñi.

Dana ondo ez da joan, baiña zerbait aurreratuz goazela esan lei. Erriaren nortasuna be, len bear ba'da gitxi batzun barruan irakiten ibilli dana, orain agiriago ta legetuago nabari da. Egia esan, ume jaio-barri baten antzekoa da oraindiño, baiña or daukagu itxaropentsu.

Eta, nondik datorren be ziur jakin barik, bake-antzeko giroa sortzen jaku begien aurrean.

* * *

AURTEN

Aspalditxoan izan dogu jaurlaritzza-antzeko zerbait Eusko Kontzeillu Orokor orretan, baiña Araudiari baietza emon ondoren, eta baietz ori Madrideko Korteetan onartu dan ezkerro, etorri jaku gure Lendakaria, Agirre'ren oiñordeko Leizaola.

Ezaugarritzko aginpide-emotea egin dau Gernika'n Leizaola'k. Guda-aurrean lortu genduan askatasun-mailla ur dagoala somatzen dogu. Agintaritzza, erritik sortua, orduan eta gaur.

Laster auteskunde barri baten bidez Jaurlaritzza barria sortuko da eta zenbat ondoren egoki ortik, bake ba'da!

Urte itxaropentsua, begien aurrean daukaguna!

* * *

GAZTEAK

Erantzupen gogorra emon-bearra izan zan aldietan, gure gazteak sendo agertzen ziran, talde on bat beintzat. Baiña gaur-egun motelago aurkitzen doguz. Orain esaten dan lez, pizka bat «pasota» biurtu ete jakuzan nago.

Zarata egitea baiño lan egitea gaitxago izango jakelakoan nago!

Eta gazteentzat, Euzkadi'n be bai, tentaldi gogorak datoz, lo-bedarren, alkoolaren eta seksuaren aldetik gitxienez. Eta Erriak gazteak bear ditu ganorazko lanik egitekotan.

* * *

ALDERDIAK

Erriko jaurlaritzarako alderdi-politikuen bidea artu dogu aspaldion, demokraziaren izenaz. Eta bearrezkoa izango da. Gure erria demokrazi zuzenean ainbeste urtean alderdi politiku barik bizi izan dala jakiña izan arren. Ba-ziran alderkikeri antzeko jokabideak oiñaztarren eta ganboatarren artean be.

Ez ete diardue alderdiak eztabaida larregitan, barruan eta kanpoan? Ete dago or giro itxaropentsurik?

* * *

EUSKEREAA

Euskera bizira, errietan egiten danera begiratu ezkerro, ez daukagu itxaropentsu izateko zio geiegirik. Itxaropenerako bide barria, eskoletan eta ikastoletan euskerea irakastea da eta orretan beste itxaron-bide bat dakusgu: Gure agintaririk aundienak eskoletan lenengo urteetan gitxienez, erri-euskerea irakatsi bear dala uste dabe. Izango al da!

Urte barria, itxaropen barria!

LARRA'KO OLERTI - EGUNA

Urtero lez Larra'ra joan giñan pozarren Kristo Erregeren azilleko azkenengo igandean egun zorionsu bat emoteko asmo biziāz, eta alan gertatu jakun.

Goizez ozkirria, gagozen aroaren araberan, eta eguna, eguzkitan batik bat, oso atsegintsua, egitan.

Aurten 20'garrenez ospatu genduan, 1960'garren urtean asitako Olerti-Egun gogoangarri au.

Ba-eukan aurtengo egun onek beste alderdi edo ikuspegi alai eta txalogarri bat guretzako, aulako jai txeratsu ta berezia aita Jokin Zaitegi zanaren omenez go-raipatzea.

Niretzat, beragaz urte bitan Guatemala'n egonikoa nintzala-ta, txit unkiagarria zan izan be.

* *

ALKARTURIK

Beste urteetan oi genduan legez, bertaratu giñan guztiok alkar onetorriak emon eta Aita Santi agertu ala, beragaz eleizaratu giñan.

Euskal eta oerti-kutsuzko mezea benetan, Aita Santi'k berak emonikoa.

Asieran olerki sentikor bat irakurri euskuen.

Meza osoa euskal senez, abestiz eta doiñuz josirik izan genduan, ortarako organu-jotzaillea lagun-tzaille bikaiña genduala.

Azkenez, agur jaunaren eresiz amaibide gurkalaria emon geuntsan mezeari.

* * *

ITZALDIA

Zer esanik be ez, Aita Santi'k emon euskun itzaldi beroan Kristo'ren erregetza gure sendietan, errian, aberrian, au da, beetik gorako doguzan mailletan, agertu bear dala eta euskaldunen benebenetako batasuna bear-bearrezkoa dogula, ondo baiño obeto adierazo euskun.

Laterri asko ikusi dira kondairan zear batasun-ezagaitik betiko suntsituak izan diranak eta ez

genduke guri be arelakorik jazotea gura izango.

* * *

OLERTI-BATZARRA

Danak ondo urten baeban, meza ondorengo Olerti-Batzarra bai izan zala, nire uste apalez, azken urte oneitan ikusi doguzan onenatariko bat ziur asko. Eleiz-alboko ikastolaretan berein urtetan Legez, izan genduan bera.

Urtero bezela sarrerako mai baten ganean, edonoren sakelak ordaintzeko neurrian, azkenengo idaztirik ospetsuenak, bai itz lauzkoak baita ere olerkiz osaturikoak, salgai egozan.

Aita Santi Onaindia maiburu genduala, maikide lagunak izan ziran Arrasate'ko Alkate jauna ta Velez de Mendizabal, ez-izenez Mendiaga jauna, Aita Zaitegi'taz batak sarrera labor ta egokia eta bigarrenak idaz-lan txukun, luze ta sakon-sakona gipuzkerarik garbienean irakurri euskuezan.

Eurakaz bat E. Erkiaga ta Labayen Euskaltzaindiko jaun agur-garriak osotzen eben maia.

Asieran Aita Onaindiak aurtengo irabazle izan diranei diru-sariak banatu eutsezan.

Olakoetan ez dogu txindi-saria begiratzen, ez bai-gara aberatsak, bai bestalde aurkeztu oi diran olerkien balioa ta eurengandik jalgi oi dan barne-arnasa ta olerki naiz bertsoen sen bereziak batik bat.

* * *

SAILLAK

Leiaketarako lanak, beti lez, iru sailletan banandu ziran: Lirika-saillea, poema-saillea, ta bertso-saillea.

Lirika-sailleko 74 Ian iritxi ziran, poema-sailleko bi bakarrik eta bertso-saillerako 22. Guztiz 118 idaz-lan.

Lirikan irabazleak Sabin Muniategi ta Eusebio Erkiaga jaunak izan ziran.

Poema-saillean, Martin Ugarte ta Jesus Gaztañaga.

Bertso-saillean Xabier Lete ta Pedro Mari Esnal.

Ez ziran guztiak agertu, baiña diru-sariak Aita Santi'k, bertaratu giñan oroen txalo ugariakaz batera, banandu ebazan.

Olerti-jai beroari jarraituz, len esandako Arrasatear Alkatearen eta J. M. Velez Mendizabal gaztearen Ian baliotsuak irakurri ziran.

Azken ona beraz, asieran esan dautzuedan lez, Zaitegi'ri buruz entzun dodanik onena, ezbairik gabe.

Asko ezagutzen neban Zaitegi zana, ori ta be ez nekizan bere ainbat bizi-zeaztasun. Danok, nik uste, txundituta geratu giñan bere bizitzearen barri jakingarriak entzutean.

Gaia luzatu egiten zan eta Aita Santi'k maisuki, trebetasun osoz idatziriko Zaitegi'ren olerkiari buruzko lan luzearen ekintz berezienak irakurri euskuzan. Azkanez, eta amai-bidez, Bordari jaunak jatorrizko olerkari sutsuak, bere gogarte ta umore parebakoa-gaz Zaitegi'ren olerkietatik, andik eta emendik, arturiko banaka batzuk, abots eta oguzkera bereziz irakurri euskuzan.

*

BAZKARI-LEGEZ

Jarraian, azkenengo urteetan bezela, Txaltxa'renean bazkaldu genduan. Bazkari ugaria ta txit ondo gertaturikoa.

Akeita, atariko, txokor eta guzti. Eta ez iñola ere garestia.

Datorren urteko olerki-jaiā Zamarripa naiz Mikel Zarate abadeen omenez ospatzeko erabagia artu zan.

Azken baten, geienen iritxiz, Zamarripa'ren oroimenez, ospatuko zala uste genduan, bera lentuago be bizi zan eta, zergaitik ori bul-tzagai lez artu genduan.

Gero andik bakoitxa bere artegira. Eta ni Xabier Peña ta Labayen Euskaltzaindiko jaun lan-gille porrokatuak lagun nebazala, neure txokora, Bilbo'ra.

ARREGI'tar Josu'k

Baltzak eta zuriak

Iparamerikako burrukarik gogorrena: zuri ta baltzen arteko bizi-era. Eztabaida ta burruka gogorak sortu ziran antxiñatik zurien eta baltzen artean. Zelan alkartu enda biek? Zelan bizi batera? Zuriak ez eben euki gura ar-emonik baltzakaz. Burruka au azpalditik etorran. Eskoletan eta Ikastetxe Nagusietan batez be zelan alkartu zuriak eta baltzak? Jazoera bat gogoratzea naiko bien arteko eztabaidak ikusteko. Oso aitatua izan zan bere garaian. Mundu guztiko egunerokoak eta aldizkariak argitaratu eben eta ots aundiz.

Loiola izena dauan Unibersidadea dauke Jesuitak Nueva Orleansen. Millak ikasle. Baltz bat be ez. Danentzat zala esan eta iragarri eben Jesuitak. Lau-bost baltz joan ziran lenengotan. Lau bat mille zurien gurasoak zuzendaria estutu egin eben urrengo egunean. Edo baltzak jaurti bear ebazan edo euren semeak aterako ebezan. Gurasoak danak katolikoak ziran. Betiko endauzia biztu zan eta danak irikitan jarri ziran. Alperrik dana. Zuzendariaren itzak ez ebezan ekarri bide onera. Lau-bost baltzak etxera.

Ta bitartean Elizak zer egin eban? Ez zan lenengo aldiz. Len be ikusi ziran olako jazoerak. Elizak danentzat bardiñak izan bear eban. Orain irakaskintzan zan burruka. Eskoletan baltzak eta zuriak batera ikastea txartzat artzen ebana Elizatik atera ta jaurti, au da, eskomulgatu egingo ebala esan eta oartu eban Jose Rommel Artzobispo jaunak. Zoritxarrez irugaz egin-bearra izan eban bere agindua bete gura ez ebelako.

Zurien eta baltzen arteko eztabaidak eta burrukak arinduz doaz Iparamerikan. Gobernuak eta Elizak batera dagie onetan. Iritxi batekoak dira. Punterengo agertu zan onetan Jon Kenedy Lendakaria. Bere ondoren agintari guztiak lan ona egin dabe gai ontan.

Baltz asko ikusi leitekez gaur egun agintarintzan-da. Batak besteari begirunea dautso ta zorionez ez da ikusten lengo gogorkeririk.

Gure artean ez da zuri ta baltz-arteko burrukarik. Alan be ezbardintasun aundiak oartzen dira gizarte-bizitzan aberatz eta beartsu-pobreen artean.

Ezbardintasunok arindu ta kendu arte ez da izango bakerik. Bakeak zuzentasuna dau bide bakarra. Danok Jaungoikoaren seme-alabak gara ta elitzake izan bear onelako ezbardintasunik gizartean. Batasun aundiagoa, alkartasun aundiagoa, anai tasun aundiagoa. Jaungoikoak libre egin eban gizona. Iñork ezin kendu leikeo gizo-

nari Jainkoak emondako doai eder au. Askatasun onek pentsatzeko, batzeko, iritxia agertzeko esku-bidea esan gura dau. Onela mintzatu da beti Eliza batez be azken aldietan. Agintariak ez dauke eskubiderik, ez dauke almenik gizonari eskubideok kentzeko. Zapalketa da au.

Eta zenbat zapalketa ikusten diran gure artean. Jokabide onek ezin ekarri bakerik, ez zorionik. Jainkoaren eta Elizaren guraria argi dago. Gizon guztiok bardiñak gara, jatorri bardiña daukagu. Beraz aberatzat eta pobreak jatorri bardiña dauke ta eskubideak be bardiñak euki bear dabez. Aginbideak eta indarrak ez dira izan bear gizonak banandu ta zapaltzeko bideak eta iskilluak.

Aiendu beitez danen onerako gizarte-ezbardintasunak.

GOIRIA

Errotarako bildian

Illargi argiagaz
goizean-goizetik
bere asto aul-zarra
errenka aurretik,
txapel zar-zulatua
buruan ganetik,
errotara doa arro
Koxe ibai-ertzetik.

«Arre, astoa, arre,
ur dok errotia,
zoli ta bizkor ankok,
aztu eik askia;
orain ondo iokatu,
t'emongo saria;
garagarra gozoak
eta pentzu guria».

Zama aztunaz larri da
asto gixaxua;
Koxek erruki barik
damotso palua;
agoa bitsez eta
odolez lepua,
auts-artean jausi da
astotxu gaxua.

Koxeren biotzean
ituna-larria,
astoa jaso nai ta
alperrik guztia;
alperrik bere indarrak
eta sendakia;
asto zarrak emon dau
azken arnasia.

Ustekabean antxe
Anton auzokoa,
jaurti dautso Koxeri
beingoan bertsoa:
«ilda dakustan ori
ziñez dok astoa;
zutunik dakustan au
ez txikiagoa».

GOIRIA

IPAR ETA EGO EUSKALDUNAK

Euskaltzaindiko barriak diñoenez, «H»'ren auzia 200 itzetara mugatuko da.

Euskalerrian jazorikoa, negargarria ez balitz, barragarria.

Euskerearen zeregiña makala bada, euskal «grafiak» be ba-dau arazorik.

Onetariko aundienetako bat, «H»ri buruzkoa, antza. «Grafian» be batasun gabeak izan ei gara euskaldunok.

Ipar aldekoek, «H»aokatzan dabenez geño, idatzi be egiten dabe.

Ostera, ego aldekoek, ezpanetan galdua genduanetz, ez idazteko joera izan dogu...

* * *

Baiña, oraintxe dator etortekoa: emengo idazle batzueri, «I» ez idazteko joera ori, galdu egin jaken, «kontixu», eta «H»a onartzen eta idazten asi ziran.

Orregaitik, Arantzazu'n bizi-bizi azaldu zan auzi au, «bokal artekoak begi onez ikusiak izango zirela» erabagiz.

Eta Ipar aldekoai galdetu eutsen, ia ta «H»ak izteko asmorik ete eben. Eurek, ezetz esan ebenez, bearrizkoak ebezan «H»ekin txosten bat egiteko agindu jaken.

Arei, bearrizkoak jakezanakin zerrendea egiteko agindu Eta emengoek, «H»a aurkitu ebenok, astrapaladaka, «I»ok artzen, erabilten asi, ta erabillazo, dana bat izan zan: «Zer ba? Iparaldeko anaiak baiño gitxiago ez gara izango! Gure gurasoak analfabetuak ziran baiña gu ez. Guk, euskera intelektuala bear dogu!».

* * *

Eta orra, or, euskerea il-bizian dagonean, euskaldun gizajook oraindiño geiago naastetako erea beingoan aurkitu.

Euskaldun diranak eta ez diranak: «i Que mi hijo aprenda a poner bien las haches; no quiero que tenga mala ortografía!».

Aintziña ez dala idatzi zanez, 6 urtetik 17 urtera bitarteko gaztetxoak, 13.000 ordu emoten ditu ERDALD UNTZEN.

Zenbat ordu emongo ete zituan EUSKALDUNTZEN?..

Eta orain, onenean be "zenbat lemon! aal izango ditu?..."

«H» orrek, euskerea erreztu egingo ete dautso?...

* * *

« e Con «H»?». - « j Con «H» intercalada?». - Edo, «H»gaz, «H» barik» galdetzen dabe ume ta aundi: erdaldun eta euskaldunek.

Eta au, ori ta a «H»gaz. Eta, emen, or eta an «H» sarturik, gure arri, orri, uri ta iri andikiak. Batasunaren izenean, «I»z bete jakuz!

Euskalerriko lekuizen eta abizen geienak, «grafia» txarreko eginda! ERRIA, HERRI biurturik, 100'etik 90 «H» bakoa dan Euskalerra geienari, «H»miraritsu orrek, lenagoko dana, ortografi txarrez itzirik, bizitza emongo ete dautso?...

* * *

Baiña, illunaldiko argitasunean egindako aurkitze arrigarri orrek, banantza aundiagoa egin dausku: idazlanak eurak be, txartoago idatzita agertzen dira; berba batzuk «H»gaz eta beste batzuk ain barik, ildakoen eskeletan be. Eta, ortik zear ikusten doguzan kartelak etab?

Edozelango euskeran idatzita ikustean min emoten ba'dabe, «H»gaz arrigarriago dira.

Lau diputaziñoek sorturiko Euskaltzaindiak uste bear leuke, 200 orreek ze mezede egiten ete dautsoen euskereari.

Erderak, 1.700 inguru ei daukaz. Baiña euskeran, ez jakin zergaitik, amar bidar geiago lez ikustera dira.

Orain arte, Ego-Euskalerrian, ba-zan batasunaren alde eginda zanik: biar, ogija, bijotz: biyar, ogiya, biyotz, etab, gero, biar, ogia, biotz, idatzi ziran geien baten.

Konplikaziño barri onegaz, onik zer jazo da?...

Illunpean egindakoak, zuzendu bearrrik izaten dabe sarritan...

«H»ren auzi au trafiku barria izan ete da?... Gure anai iparraldekoena ala gurea?... Areik, guri begira ei dagoz: eta gu areri?...

Euskeraz «H»gaz idatzi dauan batek.

EUZKADI'KO DANTZAK

LIBURUA

Goienetxe'tar Euken'ek «Notre terre basque» izcneko liburua argitaratu eban, Baiona'ko Cordeliers Irarkolara, 1961'ean eta gaurko berreun dantza zenbatzen ditu, Ipar-Euzkadi'n clantzatzen diranak.

Soule ta Zuberoa ei dira dantzetan lurralderik aberatsenak.

Euretatik clantza bi oituragabetu egin dira; «Zazpi, jauoziak, phika jauoziak» deritxona ta makil dandza. Artzai ñaren bitartez, Satanas'en «Ibillaldi Ona ta Monsieur Dumollet'en soiñuz dantzatzen dana garrantzikoa da, baiña, batez be, Soule'ko mozo-roduna (Mascarada Suletina), Euzkadi guztian zabaldu dana. Olacta'tar Segundo jaunak artu dau geienez parte orretan.

†

TXERRERO

Soule'ko Mozorroduna, izatez clantza moltso bat da. Dantzetan talde aurrena, beiñena, txarri-jagole (txerrero), makilla eskuan, atzean zaldibuztana ta garria txilin-soiñuz; gatuzañalc otza mnakurka-zerlanga daroa zabaldu ta batuz soiñu neurritz. Txerrero'k eta Gatuzañiak txapel gorri bat urrezko mortxil bategaz, jake (kasaka) gorria, bujarreko zuria, pran-tza-eraz galtzak zerlanga-zirlingaz apa-indurik daroiez.

KANTINERSA

Neska arda-zaiña, emeretzigarren gizaldiko arclauzaiñen soiñelcoa daroala.

«Zamalzain», zaldi-antzeko bat tur-turua bereztun lez daroana eta bere soiña katxa luzez inguraturik eta gona aundiz ornidua. Ikurrinduna (enseñaria) zidarrez jositako praka luzeakaz.

†

GODALET DANTZA

Dantzarik aundiena talde onek egiten dauana. Edontzi dantza esan gura dau.

Eta Soule'ko dantza batzun azalpen au Zubero'tar eres-batzarckin osotzen da: Txirula, artzain-txilibista antzeko



iru zulozkoaz eta «soiñuz», zarta batekin joten dan bost lokarriko kutxa luzea tun-tun lez egiten dauana.

* * *

SANTIBATE

Be-Nabarra'n be ba-dagoz euzko-triskak, dantza biribillak, oinkada koropillatsuz eta aldaketa ugariz, dantza musikariak antxiñako agertzeakin.

Santibate cdo zaldiketa, iñauterietan bidegille zaldunaren ulezko txapelagaz, tun-tun aundi bat «Ziganteak», olentzaro gizon-irudi, erraldoc tantai guztiz aundiak gonakaz dirala, dantzari trebetsuenak eroanda bideratuak.

Eta azkenez, errizaiñak, buruan txapel gorri batekin, arkondara zuria, xingola bitxi ederrez apaindua eta bizkar-gaiñean sorbaldeetatik beera jaus-ten diran xingola margotsuak, garrian garriko gorri sedakizkoa eta prakak flotaz apaincluak.

DANTZA LUZIA

Luzia esaten jakon dantzeak, zeaz-tasun berarizko lez, emakumeen eskuarte ta crkidetzea artzen clau.

Parroki batzutan, Heletten, Irisarri'n, Korputz eguneko eleiz-inguruko aberri-dantzak jarraitzen dabc: talde gaztea, lenengo Kaisar-aldiko jaz-keraz jantzirik, xingola ta galartsuz apainduta eta eleiz-barruan bertan

Altarako Jaunaren aurrean guztiz antxiñako dantzak egiten dabez.

* *

KAKKAROT DANTZEA

Laburdi'n antxiñako euzko triskak ia aienatu edo ezereztu egin dira eta cz dabe irauten makil-dantzak baiño. Kaxkarot taldeak egiñak dira eta erri batzutako gaztediak eratuak, iñauterietan dantzatzeko izaten dira.

Bestaldez, zirri-parra bere osogailu arin-ariñagaz aldi on bat daukee eta Zuberoa'n zabaldu (lira. Aragoitarren jotearcn egokiera naikoa ezbarña cla.

* *

TALDE UGARIAK

Ipar-Euzkadi'n orain folklore-taldeak ugari dagoz eta azken-urtc oneitan egin tza txalogarriak egin dabez euskal-dantze tan.

Batzuk, Zuberoa'n Iez, bertako dantzetan geratzen dira. Beste batzuk, Laburdi'n Iez, Bizkai'ko ta Gipuzkoa'ko dantzak ikasi dabez.

Talde onei eskerrak, turuta, tanborra ta zaamiola aldendu dabez eta tanborilla ta txistua sartu.

Eta zer-ikusi andikoa da talde oneik beste euskal lurraldekoak ikasiz gaiñera, era bereziz eurenak jagotea; Soule, laburdi ta Be-Nabarra'koak esan gura dogu.

EGILUZE'k

BATIKANO PEKIN



EGOERA MINGARRIA

Txina'ko ikuskizun-aldatzeak, Pekin'eko erlejiño-egoera, gai mingarria da Batikano'rentzat.

Banbu-errezelaren * osteko gaien argibide siñisgarriak, Txina'n naikoa urtetan zear erlejiño eratu ta agirikorik ez dagola diño.

Baiña erritarren biotzetan, azal-azpian, oraindiño fede katolikuak iraun eta jarraitzen dau. Abade praille ta Eleizearen urritasuna izan arren, gure erlejiñoa alikatu ta jago ten da.

Argi ta zeatz, zer esan gura dau Batikano'rentzat legeko iraupibdeak? Oraingo pastoralgintza itxarotea ta igerbidea * dala.

* *

ARTU-EMONAK

Erroma'ko aurkiaren eta Txina'ren arteko artu-emonak, gizaldi askoz aurretik datoz.

Diplomatiku-artuemonen austea 1951'garren urteko irailaren egun larrietan izan zan. Orduan jaurti eben Txina'tik Andoni Riberi Gotzain-burua, Aulki Donearen diplomatiku Ordezkarria, ainbat denporan giltzapean euki eta gero.

Zelakoak izango ete ziran ausitako artu-emon areek? Ori ulertzeko bear-bearrezkoa da Txina'ko Eleizeaen kondairea agertzea.

s: x *

KONDAIRA

Txinak ba-eukan kristiñaukaz zer-ikusia. Nestorio'ren jarraitzaille ziran kristiñauak eldu ziran ara, Tang dinastialdian eta Siam'en erritartu ziran 635'garren urtean.

Jazokizun ori gomutatzeke, atxurdiñezko oroitarrria jarri eben. Ba-dira ori sinisterazten daben beste gai batzuk be.

Geroago, makalaldia izan eban fedea eta Tang erregetxearen azkenerantz ezereztu zan.

* * *

BIGARREN ALDIA

Eleiza katolikuaren benetako kondairea, 1924 urtean asten da, Italia'ko Frantzisko'tarrak ara eldu ziran.

Montekorbindo'ren aginduz joan ziran. Laster egin eben mixio-lur eder bat Pekin-aldeko zabalera eta kristautasunean Mongol eta Tartan arduradun zirala.

Mixiolari Frantzisko'tarrak Kublai Khan'en erregetxean, Aita Santuaren ordezkarri lez egoten ziran eta arek eskatu eutsen Erroma'ri eun mixiolari geiago bialtzeko.

Montekorbindo Pekin'go lenengo gotzain-buru egin eben 1307 urtean eta bera il zanean 30.000 katoliku egozan an. Ondorengo 40 urteetan katolikuak 200.000'ra eldu ziran.

Gero Txina'tar Ming'ek Mongol eta Yuan'en ondoren eta onen jauskeraz eleiza katolikua aicnatu * ta ezereztu egin zan.

* * *

IRUGARREN ALDIA

Amaseigarren mendecaren * azken-inguruan, Matteo Ricci ta onen lagunak, josulagun Italiarrak eldu ziran Txina'ra.

Laterri onetako mixio-ibilketak Ricci'k eta aren jaupariak * egindako lanen ondorenak dira.

Euren mixiolari-endar eta bultza Txina'ko kultura ta Konfuzio'ren etika-arauak kristautasunagaz egokitzea * izan zan. Orregaitik onartuak izan ziran.

* * *

IDAZKI MINGARRIA

Aita Santuak, jokera ori zala-ta, EX QUO SINGULARI idazkia bialdu eban. Idazki orretan Jesuiten ondoren joandako Franzisko'tarren eta Domingo'tarren indarrez, jokera ori gaiztetsi egin zan *.

Josulagunen eldekoak erri-izkuntzaz liturjia egiteko ta antxiñako gurasoak goratu ta gogoratzea nai eben. Baiña gauza bi oneik ez ebezan onartu beste anaidi biak.

Eztabaida onen ondorenak kristiñauen jazarpene * ekarri eben.

Augaitik, 1773 urtean Txina'ko kristiñaukuntzari atek itxi eutsoczan berrero. 190 urteko lana eginda gero, 472 josulagun mixiolari zirala.

* * *

LAUGARREN ALDIA

Emeretzigarren gizaldian kristaukuntza berrero agertu zan Txina'n, lo-bear (opio)-gudaren ostean.

Laterri zabal eta aundi au, atzerritarren ikurripean ebillan eta mixiolarien eskubideak Sartaldeko eta batez be Prantziko gudarien indarrez zainduta egozan.

Sartaldeko agintarien elburuak * eta asmoak «Meloitxina» erdibitzeko bideak dira eta irri-izeka lotsagarria Txina'ren jabetasunaren eta osotasunaren aurka.

Pio XI'aren aldian, izan ziran gorabera barriak, baiña onek ostopoak azpiratu eta * Zelso Konstatini izendatu eban Ordezkarri. Sun-Yat-sen lendakariak ondo artu eban Konstantini. Pio XI'ak sei gotzain Txina'tar igurtzi zituan.

LETONA'k

<i>Errezel</i>	= cortina
<i>Eratu</i>	= organizar
<i>Igerbide</i>	= conjetura
<i>Mende-gizuldi</i>	= siglo
<i>Jaupari</i>	= sacerdote
<i>Adiñondu</i>	= adaptarse
<i>Gaiztetsi</i>	= condenar
<i>Jasarpene</i>	= persecución
<i>Jaurtikia</i>	= expulsión
<i>Elburu, asmo</i>	= propósito
<i>Irri, iseka</i>	= burla
<i>Babespe</i>	= protección
<i>Ostopo</i>	= impedimento

MUNGIARA (San Antontxu)

Mungia'ko jenteak, eta inguruetako errietan bizi diranak ez gixiako, neguko jai pozgarri bateri itxaroten dagoz. San Antontxu egunari.

Bigarren egunak, «txu»-ren egunak izaten dira Mungia'n ospetsuenak: San Pedro'txu ta San Antontxu.

Egun orreitan, erri-jai egiten da. Eleizan ez da izaten zeregin aundirik, San Antontxu egunean ezer be ez astegunetako ekinaldiak izan ezik.

Baiña errian jairik aundienak eurak dira. Ez dakit zein ospetsuagoa, baiña San Pedrotxu uste dot, udakoa be ba-da ta.

San Antontxu'k be ba-dauka bere ospea, eta ez txikerra.

San Anton auzo bateko jaiak eta santuaren egunean ezer egitekoatan an egiten zan. Ez dira gorabera txikiak izan jai ori dala-ta!

San Antontxu, ostera, Mungia'tar guztien eguna da, egun aundia.

Abereen feria egiten zan urte batzuk dirala, feri ospetsua! Baiña azkenengo urteetan, Udalaren itzitasunez, lupetz-artean egiten zan. Orain ez dakit azoka onek jarraitzen dauan be.

Eta zelako pozaz joaten ziran baserritarrak ara! Bear ba'da ez ezer saldu edo erosi egiteko, baiña bai atxaki orregaz eguna igaro Mungia'n eta bazkari ederra egin bertan!

Andrentzat be, aurreko zapa-tuan azoka ederra egiten zan. Jarraitzen dauala uste dot oitura onek.

Andrak dirua urriago erabilten eben eta ez eben bazkaririk egiten. Geienean be Leku Ona'n edo olako gozotokiren baten gosaldu.

Azoka au astero egiteko, azoka-leku ederra egin zan erriaren erdi-erdian, gainean ibil-tokia dauala, barruan edate-etxea.

San Antontxu egunean jentetza aundia batzen da Mungia'ra. Kaleetan nondik ibillirik be ez. Batez be urtero izaten diran pelotajokoak izaten dira jentea ekarteko onenak, naizta asko jokaldirako egin-egiñean etorri eta gero euren etxeetara joan.

«Concordia» kalea ez da estua, baiña ondo betetan da egun orretan. Eta arira datorren ezkerro,



Mungia'ren uriburua barriztua: Erdian udaletxea, eskoian eta berebillen aurrean Azoka-leku barria, gainean here ibiltoki ederra.

kale onen izenak kondaira-alde-tik bere garrantzia dauka. Baiña zergaitik erderazko izen ori erriaren erdi-erdian? Zergaitik ez, esaterako, ALKAR-KALEA edo olako izenen bat.


Jatetxe ta edatetxe asko dagoz Mungia'n, berrogei ta amarretetik gora. Eta egun orretan guztiak bete-beterik izango dira. Batez be jateko lekua aurkitzea ez da gauza erreza izango berandu dabiltenentzat.

Jaiak gogoratzen doguzan ezkerro, San Pedro-inguruan ospatzen dan Sukalki-eguna datorku burura. Jai ederra benetan, eta toki ederean! Billela torrearen inguruko baratz aretan. Giro pozgarria ta gogoangarria.

Auzoetan be egiten dabez Mungia'tarrak jai pozgarriak. Errira etorri goizean, eskoteko zaragia erosi eta txistu ta dantza auzora eroan eta an zugazpe eder eta kerizpetsuetan alkartuta!

Zenbat gauza aitatu geinkezan Mungia'ra begira! Baiña orrialde labur onetan asko geiago ezin esan leiz.

Egun pozgarria opa dautsegu Mungia ta inguruetako guztiai,



OLAZAR'tar Martin'ek

Mungia'ren ikurdia.

Gabon - zozketak eta Ikastolak

Gabon-inguruan gauza berezi batzuk izaten dira: turroia, argi ederrak kaleetan, zozketak eta «loteria». Nire idazlan * labur au azkenengo gai oneri buruz izango da: «loteria».

* * *

Euskalerrian beti esan dogu, gure diru guztiak Madrid-aldera joaten dirala ta gero biurtzeko bidea aitzu ta antxe gelditzen dirala.

Au bai ba-dala egi aundia!

Bestelan zenbatu * daiguzan gure Errian azkenengo 40 urtetan egin diran lanak, zenbat eta zelakoak dira, ta emen be erantzuna oso txiroa * ta ezezkoa * izango da.

Alde batetik egin bear ziran lanak ez dira egin eta beste batetik egin diranak txarto egin dira ta orain lan orrek zuzentzeak barriak egiteak baiño lan eta diru geiago eroango dauskuz; Esatebaterako Otxarkoaga'ko etxeetan dagozan arazoak.

* * *

Gabonetan Euskalerrian «loterian» botatzen dauan dirua, ba-dakigu zenbat dan? Erantzuna ez dot zenbakiz emongo, baiña milloika dala ez dago ukatzerik !

Eta diru au nora bialtzen dogu? Madrilerera.

Madriletik zer biurtuko da gugana? Orain arte beintzat ezebez edo biurtzekotan «po-

lizi» geiago etorriko dira gu obeto «zaintzeko».

* * *

IKASTOLAK

Nik uste dot ikastola guztiak estu ta larri dabilzala diru-aldeetik, beraz Gabonak el-tzean, zozketa * bat egiten dabe laguntasun bat eukiteko, ta orduan edo berebil bat, edo liburu edo sari batzuk zozkatzen * dabez laguntasun ori lortzeko.

Orreri ondo deritxot naiz eta oso «triste» izan zozketa orretara eldu-bearra Gobernuak laguntzen ez daualako.

Baiña ba-dagoz ikastola ta Jakintza-talde batzuk, laguntasun ori eskuratzeko * Madril'go «Loteria Nazionala» saltzen dabenak; jakiña, 85 peseta emoten ba'dozuz, 80 loterirako dira ta 5 ikastolarako.

Auxe da ain zuzen be, niretzako lotsagarri* dana: Ikastolak «loteria» saltzen? Azkena!

* * *

Nik uste dot benetako euskaldunak ba'gara, pozago emongo doguzala 100 peseta liburu edo gabonetako-saski * baten zozketa dala-ta, ta ez 85 peseta ortik 80 ikastolarako izan bearrean Madrilerera ba*doaz.

Au egiten daben ikastoletako arduraduei * euskal-sen geiago euki dagiela eskatuko neuskioe.

IBARRA'tar Bernardo'k

Izki - Nastea

E D E R N I Ñ D A P I M U S A
 B A J U I K O B E G K E R O G
 L L U X T A Z U B I A U R R E
 I O K R I X E G A D M X T A K
 A K A R T E T A D I S O A B I
 L U N I R M I J I K E R R U M
 E S T O Z O T Z U L L R A J A
 P A S B A R G T A L O A N E Z
 O Ñ B A R R U E Ñ U Z D O S T
 J E X P O J B A L O T S A N I
 A Z T N X A O P I M A U G I L



Izki-naste onetan Bizkai'ko lau margolari ospetsuren izenak agiri dira.

Ia topatzen dozuzan! Bestelan ikusi azkenengo orrialdean.

EGUZKIALDEKO IRU ERREGEI ESKUTITZA

Meltxor, Gaspar eta Baltasar, agur:

Urtero lez, ementxe dozue nire eskari * apal au, apala da diñotzuet baiña ez dakit egiten dautzeudazan eskariak lortze] gauza * ete zarien, eta ez almenik * ez dozuelako ez!, pentsz be ez! Lortzeko oso gauza gatxak diralako baiño.

* * *

Ez dakit gogoratuko zarien, baiña igaz osakai * bat eskai neutzuen, gure arteko gorrotoak aztu gengiazan, euskaldun guzti2 artzekoa, baiña itxuraz, osakai ori zarra zan eta «kadukauta» egon eta ez eban bere zeregiña bete.

Au dala ta, nire lenengo eskaria osakai berezi ori cia, igazko baiña arren * ia aurtengoa ona dan.

* * *

Egiten dautzueclan bigarren eskaria pakea cia, Euskalerrria bearrezkoa dogu ta...

Baiña bigarren eskari onegaz lotuta beste bat dago: Euska dunak zelan paketuko gara gure anaiak espetxeetan dagozan b tartean? Ia zuek daukazuen giltzaz (ate guztiak zabalitzen dauan espetxe ta muga guztietako ateak zabal-zabalik lagatzen dozueza] gure anai guztiak etxeratu daitezcan.

Erdaldunentzako elebitasuna * cia irugarren eskaria, euska dunok ez gagoz eskari onen bearrean, aspalditik daukagu eleb tasuna-ta, naiz eta sarritan alperrik izan.

Izparrirgietan * eta irratietan garrantzizko oar * edo bar: bat emon bear dogunean euskera utsean emon bearrean euskera ta erderaz emoten dogu ta sarritan, zoritxarrez, erderaz bakarri irakurle * ta entzule * guztiak ulertu dagien.

Baina zeozer azaldu bear dabenean erderaz bakarrik egite dabe. Erderea Euskalerrrian «internazionala» da-ta.

* * *

Azkenengo eskaria, laugarrena, naiko luzea da ta orrexegaiti bestc eskutitz baten bidez * bialduko dautzuet.

Aurtengoz besterik ez, eskatzen clautzueclana eskuratuko dau: tazuelakoan agurtzen naz. Datorren urtera arte.

ZANGRONIZ'ek



la
so
uu

tu
ik
un

a,

un

l-
i-
a)

a,

l-
i-

ri
iz

k

n

k

;-

IZTEGIA

<i>Idazlan</i>	= trabajo escrito
<i>zenbatu</i>	= contar
<i>txiro</i>	= pobre
<i>ezezko</i>	= negativo
<i>zozketa</i>	= sorteo, rifa
<i>zozkatu</i>	= sortear, rifar
<i>eskuratu, lortu</i>	= conseguir
<i>lotsagarri</i>	= vergonzoso (que produce vergüenza)
<i>saski</i>	= cesta
<i>arduradun</i>	= encargado
<i>eskari</i>	= petición
<i>gauza izan</i>	= valer, ser capaz
<i>almen</i>	= poder
<i>osakai</i>	= medicina
<i>arren, mesedez</i>	= por favor
<i>elebitasun</i>	= bilingüismo
<i>izparringi</i>	= periódico
<i>oar</i>	= aviso
<i>irakurle</i>	= lector
<i>entzule</i>	= oyente
<i>bidez</i>	= por medio de

BERTSOETAN

AGUR URTE ZAAR

Agur urte zaarra!
Agur bat samifez!
Zure magal zarrean
bizi igasiez,
arnas larri estua,
begiak negarrez,
zergaitik zoaz arin
ixil ta illunez,
itxirik gu lurrean
motel oroimenez?

zugaz bizi izan naiz
gau eta egunez,
orain igasi zoaz
mendi oiartzun lez,
ilgo zara batean,
biur iñoiz bere ez.
Goikoak emon euskun
urte au zuri lez,
beronegaz gizondu
gaiten bizi-lanez,

Kezka bat dot barruan,
ar bateren antzez:
Une asko galduak
ditut nik alperrez,
Zure ondoan dator
urte barria amesez
ernai biziko al dot
bera lan-kemenez.

GALLASTEGI Kauldi

BERPIZTUERA

*Azur, odol, mamin ta gogoa
bizi egarritan ditut;
zorameneko argitasuna
ederra lez maite zaitut.*

*Barne-muiñean daukadan garra,
sumendia dala irudi,
jakiturizko itzak nai neukez
ta lorez jantzi gizadi.*

*Gora goraka dabil odola
ta biotza su-garretan,
ibaiak bezala dabiltz zaiñak
gorputzaren magaletan.*

*Gogo-zarra izketan ari da
barne min oro azaltzen,
eguzki barri indartasua, atozkit
zuzenbideak argitzen.*

*Mendiak orlegitzen doaz ariztiz.
zelaiak erne-miñetan,*

*gizon atsegiña da bizia
aritz lerdan adarretan.*

*Biziaren guriña, guriki,
enbor azaletik doa,
zugatza irriparreka bizi da,
barritzearen leloa.*

*Suge ta udabarri lur usaiña
eguzkiaren pozetan,
pisti arrea, bedar orleia
eguzkizko amesetan.*

*Lurra udabarrian biztuten,
bizi barria jario,
arkaitzari iturri-ur leiarra
basauntzarentzat dario.*

*Berpiztuera bereziena
ikusten dut gizadian,
gizon guztia barritu nairik
argia legez goizian.*

*Euskalduna euzkotartzen doa
Aberri min ederrean,
erri zarrena biztutzen doa
bere lurraren gaiñean.*

*Ainbeste urteko zapaltzea...!
Ainbesteko irain burleak...
otska egozen euzko odolotan,
urratu nairik kateak.*

*Aberri miñak jo dauz ateak,
taupaka dabiltz biotzak,
gizon ta larroz emoten ditu
Euzkadi ontan baratzak.*

*Euzkadi eta euskal Aldunak
gero eta biziago,
Euzko Aberri berpizten doa
izarrak baiño gorago.*

PAULIN

UMEAREN ESKUBIDEAK ETA SEXUA

Urtea amaitzera doa. Era berean amaituko ete dira umeen eskubideak? Ez dakit. Baiña, dana dala be, ez neuke urte au amaitu gura sexua dala eta, umei ukatzen dautsegun eskubidea aitatu barik.

Euskalerrian au oitura bat dogu. Eta ez oraingoa, aspaldikoa baiño.

Gure lur zerutar onetan, ume danak onartzen ziran. «Jaungoikoa kemonak ziran» eta, beraz, onartu bearra zan.

Baiña, naiz eta gai au beste ille baten aztertzeo asmoa izan, ezin dot gaur aitatu barik itzi.

Gure *Errian* umeak jaiotzatik bertatik jasaten eben banakuntza berezi bat: leenengo eta bein, abizenaren jarraipen eta oinordetzak leenengoa semea eskatzen eban.

* * *

Danak ziran seme eta etxeko, baiña jaiotza ostean be sarritan umei eskubide batzuk ukatu egiten geutsezan eta dautseguz.

Onela, esate baterako, eguneroko jolas batzuk mutilenak ziran eta neskak ez euken parte artzerik: «Mari-mutillak» txarto ikusiak ziran.

Bestalde, mutillak be ez euken nesken jolasetan sartzerik. Egia esan, jolas oneik ez euken zer ikusirik ez moralagaz ez beste ezegaz.

Eta zergaitik ukatu, ba, arrazoirik ez baegoan?

A ! Baiña gizarteak bere arrazoiak eban: mutillak elburu bat eben eta neskak beste bat.

Onetan argibide txiki bat naiko izango dogu: mutillak, praka luzeak jartzetik, dirua bera be ugariago erabiltzen eben igandeetan. Neskak, ez: neskentzat dirua arriskutsua zan. Joan-etorria ordaintzekoa emon ezkeru, or konpon!

* *

Ikasketa arloan sartzen ba'gara, zer esanik ez, neskei sarritan mutilen eskubidea ukatu jakena.

Neskak ezkontzarako; lanerako, ostera, gizonezkoak bakarrik ziran; eta, beraz, ikasketak be oneintzat. Areik, antza, etxerako ez euken ezi bearrik.

Beste milla adibide aitatuo gendukez.

Baiña itzi daigun. Eta norbaitek aintziñeko arlo bat dala pentsatu ez dagien, beste au be esan nai dogu: oraindik gaur be, eta ez jakin ez diran gizon ugari dabillega uts bardiñean.

Ikustea baiño ez dago, esate baterako, Ipar Amerikako Dixon, Prescott, Samuels, Hughes eta beste ikerle batzuren lanak. Oneintzat neskak mutillak baiño askoz ariñago ikasten dabe irakurtzen.

Inglaterrako eta Finlandiako beste ikerle batzurentzat, ostera, mutillak askoz be argiagoak dira.

* * *

Baiña... ete dauka sexuak ikasketarako argia izateaz edo ez izateaz zer ikusirik?

Ez ete dau guzti au aurretiz geuk ditugun pentsaera batzuren ondorio? Esate baterako, oraindik gaur, kale bazter baten neska bat liburu bat irakurtzen ikusteak ez gaitu arritzen. Eta geiago: poztu egiten gaitu eta ikasle ontzat dogu.

Mutil bat ikusiko bagendu, ostera, bardin pentsatuko ete genduke? Artu daiguzan, ba, danak bardintasun oso baten, sexua dala eta pertsonak jaiotzatik dauazan eskubideak ukatu barik.

DONOSTI'RA BEGIRA (Urtarrilean)

ERREGEEN EGUNA

Erregeak igaro ondoren, jota geratzen cia bat.

Erregeak kate luzea dakarre.

Gauza asko lortuko dira, baiiia Errege-eguna astu nai izanda be, umientzako jostallu ta ekintzak gogoratu eragingo dabe.

Ez dago amarik egun au galtzeko bere abotsa emongo leukenik. Gaitz. Era batera edo bestera deitu jaiari, or konpon.

Erregeak sinismenak agertuak, edo mitikoak izan, edo gurasoak... bakoitzaren sinistetan dago.

Urtea, bein ori ezkeru, negu latzean galtzen da. Berakadan.

* *

SAN ANTON EGUNA

Illaren erdi ondoren, or dago san Anton.

Traktoreak galdu eragin ditue, edo ta baste-rean laga, lengo oiturak. Baserritarrak ez dauke zetan gogoratu ganadurik ez dala uztartu bear egun onetan.

Arrantzalien san Anton, tertzak besiguz beta ekarteko eguna be, joan zan pikotara. Europa'ko batzarren baimen edo lizentzien aurrez joan be.

Besigua, gaur, beste erako arrantza-bidez, len amuekaz, gaur arrastaka erabilten diran saretan artuta, urte guztian ikusten da asko edo gitxi, ta san Anton galdu zan besiguaren kezketan.

* *

DONOSTIKO TANBORRADEA

Donosti dator ondoren, bere egunagaz. Done-osti, itzaltasuna apurtu edo eten nairik. Rau!

Tanborradak orru egin dau! Otz nai egualdi gordin, olerkariarena:

*Biotz alai,
begi ernai,
erri danak
kaletan jai.*

Erri bakoitzak bere ezaugarria. Donosti'k, negu baltzean, tanborrada. Olerkariari jarraituta,

*Bereak ditu Donosti'k
edertasun parra parra,
baiña biotzak batzeko
bego tanborrada!*

Nai ta beste askotan gerrako izkilluak jotako tanborra entzun bear.

* *

BTLINTX'EN TANBORRADA-EGUNA

Gogoratu 1876 urteko egun onetan gertatua.

Karlistak granadak erri barrura jaurtiten iñar-duela, alako batek euskal poeta samur eta bigun bat jo ta anka biak lertuta laga eban. Indalezio Bizkarrondo zan, «Bilintx».

Bere esanetan, bizitzak asto txiki bat jotan dan lez makaldu eragindako gizona. Jasan (sufridu) eta negar egiteko jaioa. Ba-dirudi pobreaken bertsoetan berbera agertzen dala:

*Beste alibiyorik
pobriak ez daka,
negairez jayo eta
bizi arrastaka.*

Negua, era batera edo bastera, danok daroagu lupoan. Lenakoena: zelan artu ala bastartu.

A. ZUBIKARAI

ILIZA ITXIRIK

Andra Mari'n eleiza, eleiza andia!
Andiak bai, senduak, zeure arriak,
Euren lekuan tente; igaro dira,
euren aurrian

ibayen urak letxe, urte, ta eunkiak

* * *

Araño elduten gara, ibillaldian,
gaztiak ezkaranak, negu arrastian.
Eta barruban, bakartaldian,
Jesus'en oñazetan, geure eskariak.

* * *

Aurten bere, araño elduten gara,

ta sartu gura geunke. Atia itxita.
Txukundu dabe eliza, polita dago,
ta zikindu eztaitean, itxi atia.

* * *

Emen naukozu, Jauna, zeure ata-
dian.

Zenbat bider Zu bere, biotz atian,
deitu ta itxaron:
baiña eztabe idegiten, zeure semiak.

* * *

Gu-maitasunagaitik, gizona eginda,

maite gaituzulako, oteundegian,
itxaroten gaituzuz, illunpian

* * *

Baiña batzuentzako, ezta naikua,
kanpoko atia bere, giltzaz itxita,
urrezko kaiol ortan espetxekua
egin zaitube, Jauna, txori txikia.

* * *

Zeure maitaliak ezin ondoratu...
Geure zorakeriak, Jauna, parkatu!

UTARSUS

JULIAN GAYARRE

KANTARI ITZALA

Erronkariko seme zan Julian Gayarre izan da munduan iñoz ezagun izan dan abeslaririk on eta ospetsuena.

A bezelako napar eta abeslari dan Fagoaga'tar Isidor'ek diñoanez, izan ei dira munduan, gitxi ba'dira be, Gayarrek baiño ez tarri indartusagoa izan daben abeslariak, baita zabalagokoak be; iñor ez baiña iñon, arek bezelako abotsik izan dauanik.

Arrigarri ta zoragarri, Genetan! Ez ei zirudian, kantuz asten zanean, mundu onetako izaki, zeruetako aingeru baiño...

GAZTAROA

Naparroako Erronkari'n jaiotzen zan 1843'ko Urtarrillaren 12'an. Erronkal mendiko artzain izan zen umetan. Bizimodu latza zala a, ta Iruña'ra bialdu eban bere amak, amabost urtekoa zala.

Olagizon biurtu zan an, eta errementari ona izatera eldu, errementari ona eta kantari ohea.

Iruñako abesbatzekoa zan; eta aren zuzendariak, gaztearen abotsaz arrituta, bertako seme ta musikalaria zan, Hilarion Eslava'ri aurkeztu eutson.

Kantari ona zala-ta, Madrid'era eroan eban abadeak gure gaztea, ta berenean artu. Madrid'ero «Conservatorio de Musica» ko zuzendari zan Eslava, ta ikastetxe onetan sartuerazo eban. Eta bertoko «Teatro Real»eko eguneroko sarrera be emon eutson, ango «opera» ta beste kanta saioak entzun egizan.

Gerora, Naparroa'ko aldundiko sari bati esker, Erroma'ra abiatu zan, emengo ikasketai goimailla emon egien.

Andik zazpi illabetera kanta eban

bere lenengo «opera», sekulako txalo artean, ogeitasei urte ebazala.

MUNDUZ MUNDU

Munduz mundu ibilli zan, bai, arrezkero; eta munduko antzoki ospetsu guztietan abestu eban, «primo divo» lez. Italiako «Scala de Milan», munduko antzoki ospetsuenean abestu ebanean, olan esan ei eben ango kantariak: ez zala, azkeneko ogei urte areetan, alango txalo-zartarik entzun.

Oso biotz xamurrekoa zan. Sarri, bere saioetara egoala, kanta itzi ta aulkian jesarten zan, begiak bustirik eta zotinka: ezin dot, ezin dot jarraitu; kantaren esaldi zorrotz orrek biotza urratzen dauste.

Beste baten, ifiotson bere lagun bati: aizeak daroan orbelaren antzekoa da kantarien ospea. Aizeak daroaz, bai, nere doñuok, eta betiko galduko dira. Ai!, musika-egille, bertso-egille izan banintz! ...ez lirake ez galduko, orduan, nire arimako doñu ta asperen samurrok!

GIZON APALA

Itz gitxiko gizona zan. Ez jakozan atsegin jai eta zatarak.

Lagunartekoa zan, alan be, eta jente arrunten lagun.

Bere errira batzen zanean, bertoko guztiakaz ibiltzen zan; pillota, jokoan ekiten eban eurakaz batera.

Diru ta ospez beterik bizi zan iñongo arrokeri bagarik baiña; eta inguruko andra gazte ta andiki askok zirikatatu aren, ez zan ezkondu.

Biotz samurrekoa zan... Eta bere ama maite ta etxeko izekori sekulako eskutitz samurrak egiten eutsezan; euskeraz, egin be.

Esku zabalekoa zan... Eta bere etxekoai lagunduz gaiñera, pillota-

leku ta eskola ederrak eraiki ebazan bere errian.

ERIoTZA

«Opera»'en errege zan Gayarre. Kantari zoragarri bezain teatro-egille baldana baiña... Euskaldun gaixoa! Ik ez dakik teatrorik egiten... Ez az, i, itxurazko gizona!

Sarri esaten eutsoen Gayarre'ri, ez ekiala ilten; ...ez ekiala, ilten dagozenen paper ori egiten... Orregaitik, bera iltera joanean, esan oi eban gaixoak: Ez dauste orain esango, ez dakitela ilten.

Ezetzik esaten ez ekian mutillak, gaisorik eta naiko jota, abestu eban)yfadrid'en bere azkeneko opera, «Los pescadores de perlas» eritxona. Eta aren «aria»'rik gatxena abestuten ziardula, abotsa eten ta jausi zan. Andik egun batzuetara il zan, berrogei ta sei urte ebazala.

AREN EZTARRIA

Erronkari bere erri politean eortzi eben Julian Gayarre'ren gorpua, Mariano Benlliure ertilari aipatuak egin dako illarri ederrean.

Ontzi bereizi batean gorderik dauke bere eztafia, jakintsuen aztergarri. Eskuetan erabilli ta erabilli, eta ez dautsoe iñongo ezer bereizgarriarik aurkitu.

Gergelok...! Zelan loturik egon aragizko ari orren barruan, aren abots zoragarria?

Aren euskal gogo samurrean zetzan arrigarritzko zertxo ori; eta Jaunagana egaz egin eban arekin batean.

SASKI — NASKI

UMEEN URTEA

Umeen urtea dala ta ainbeste ospakizun egin dira igaz (1979), baiña ni beintzat umeen urte orren aurka egon naz.

Kontuz! Inor be ez daitela arritu orregaitik; ez nago umeen aurka, umeen urtearen aurka baño.

Zergaitik?

Ba itaun oneri beste itaun bategaz erantzungo dautsat: Umeen urtea urte bat baiño ez da? Umeen urte ori igaro eta ostean zer? Eta beste urteetan umeak alde batera itzi bear dira?

Ez, umeak ez dira urte bateko gauzak, ez dira artu eta itziteko gauzak, BIARKO GIZONAK DIRA!!!

* * *

DEUSTU'KO IKASTOLEARI

Urte bi dirala aldizkari onen bitartez idaz-lan txapelketa baten barriak emoten genduzan.

«Euskera gauzarik nagusiena» elburuagaz eta Deustu-ko ikastoleak, Izkuntz Eskola Ofizialaren laguntzaz antolatutako txapelketea zan.

Lan aundia eta nekegarria izan zan baiña askenean pozik geratu ziran danak.

Orduan danak egozan gertu gauza aundiagoak be egiteko urrango urtean.

Baiña asmoak asmo, egin bakoak egin barik eta izan bearrekoa izan barik geratu da.

Zergaitik ez da igaz txapelketarik egin? Zer jaso da? Norena izan da errua? Lan egiteko girorik ez?

Ez dot uste orregaitik izan danik.

Ala laguntzarik ez?

Benetan uste dot bearrezkoak dirala orretariko txapelketak, eta nagargarria izango litzakela ainbeste garrantzi daukien gauzak galdutea. Ia esakera au betetzen dan: Urte barria txapelketa barria.

* * *

ELEIZ-LAPURRAK

Gauza txarrak esaten asi garan ezker, aurrera jo dagigun, gauza txarrak ez dira amaituten-ta.

Nork ez dau ezagutzen gure baseleizen arazo eta egoera larria?

Batzuk jausten dagoz, beste batzuk erre egiten dabez, eta gitxienak konpondu.

Bai! Konpondu be bai!

Or daukaguz Gaztelugatxeko San Juan' en edo San Pe-layo'ren baseleizak, bat erretakoa eta bestea jausten egon-dakoa.

Baiña oraindik arima bako gizonak be geldituten dira, erriari min egiteak ardura ez dautsenak, or daukaguz Aralar'eko kasua, edo Ondarru'koa.

Ezin leiteke erri baten siñismenagaz jokatu eta gitxiago euskaldun siñismenean ain sakon sartuta dagozan gauzakaz.

* * *

EUSKERA IKASTERA

Euskera, gure lan eta burruka. Astiro-astiro ba-doola burua jasoten esan daikegu, baiña ain astiro doa...! Jende asko asten da euskera ikasten, borondaterik aundienagaz, baiña beste batzuentzat «hobby» bat baño ez da; onek oba izango leukie piñuak botatzen joatea.

Jazinok! euskera jakitea ez da «Gora Euzkadi Askatuta» esatea bakarrik, ez ta paparrean ikurrin bat éroatea, ez eta abertzalea zarala esatea, edo egunon, gabon eta beste iru edo lau lelokeri esatea.

Euskera ikasteko orduak sartu bear dira, ala ez dira sartzen Ingles edo Frantzes ikasteko?

Euskerari emon dagiogun daukan garrantzia.

* * *

BAKIO'KO BERBALDIA

Orain dala ainbat denpora, Dagonillan ain zuzen be, Bakio'ko batzokiak itzaldi batzuk gertatu ebazan.

Euretariko bat euskereari buruz zan, eta orretariko Euskaltzaindiako eta Euskerazaintzako ordezkooak ekarte uste izan zan, orrelan gaur dagozan jokera biak aztertuko ziran.

Asiera batetik Euskerazaintza gertu egon zan ordezkoren bat bialtzeko, baiña Euskaltzaindia igesbideak artzen asi zan: Lenengo oporretan egozala, eta itxaroteko Euzkadi-Irlanda partiduari, eta orduan deituteko, Gero partidu ori dala ta astirik ez eukela, eta geroago dei egiteko. Azkenez Euskaltzaindiako guztiak oporretan egozala eta eziña ebela joatea.

Orregaitik nire itaunak oneek dira: Zein da garrantsi-tsuaga OPORRAK ala EUSKERA?

Oporrak euskerea baiño lenago ba'dagoz etorkizun makala ikusten dautsat euskereari, baiña euskerea oporren gaiñetik ba'dago ez dot ulertzen Euskaltzaindiaren jokabidea.

Egia esan, idazki au berandu samar dator, baiña denpora apur bat igarotea egokia izango zala uste dot, gauzak otzetan obeto aztertzen dira-ta.

* * *

URTEBARRI

Joan jaku urtea, etorri da urtea Gabonak be igaro doguz.

Bai Gabonak!!

Zoriontasunean eta sendi atean igaroten diran egunak; amaitzen dan urteari azken bagirakada bat emonaz igaroten diran egunak.

Ostera urte barria ri begiratuaz asmo barriak sortzen dira; batzuk beteko diva, beste batzuk aiztu, eta beste batzuk dator'en Gabonetan be, asmo izaten jarraituko dabe.

Baiña mundu au ez da geratzen, bizitzeak bere bidetik jarraitzen dau, eta gu ezin gaYa bultzti onetatik jatsi. Artu dagigun urte barria gure itxaropenik aundienaz.

BAKEAREN IZENEAN, ONGI ETORRI 1980!

LENDAKARITZA

Beste erri batzun antzera, gure Euskalerrria be sendiaren jokabi sortua da.

Baztan'eko oitura, ezaguna da gui e kondairan, eta beste ibar asko edo geienetan be orrelan izango zan, zalantza barik, sendi barria sortzerakoan. Ezkonbarriai irureun kanako lur zatia emoten jaken. Eridan munarria, inguru biribilla edo makobilla. Gaur be ba-dagoz itxura orretako korta-basoak gure errietan.

Eta leiñu-erri orretan, bat izaten zan buru, gorago alkartzeko bear-izan aundi barik asikera aretan.

Baiña laster sortu zan alkartzeko sendoagoak egin-bearra, batez be inguruko burrukak eta errien lu sortu ziranean, araurkako burrukaldietan batez be.

Gure eskueladeetako agintaritza batzarretan egoan, sendi-buruak eta erritar leunak osotzen eben batzarretan.

* * *

Gero, batez be gudaldietarako bearrezkoa zala-ta, batzarrak ba aukeratzan eban: Gudari-buru lenengotan eta eskualdeko jaun geroago, izango zana, eta ordutik aurrera Bizkaia Jaun-erri biurtu jakun, Napparroa ostera erre-iñu.

Jaun oneik, edo errege oneik, on asko egin eutseen gure eskualdeai, baiña kaltetan be ez gitxi. Aundiki biurtu ziran eta inguruko gizon aundiak, erregeak batez be, jaun-ardura ori eurentzat nai izaten eben.

Eta lortu be bai.

Iparraldea, Enrike III'aren gurariz (Paris'en IV) Frantziagaz alkar-tu zan errege orren etorpidetz, Araba ta Gizpizkoa Gaztela'gaz bat egin ziran itunaren bidez, Bizkaia Ez-kontza-bidez eta Napparroa Erre-

ge Katolikuaren ankerkeriz azpiratua izan zan guda-bidez.

Orra or Euzkadi guztia atzerri-tarren menpean, jaunen erruz. Egia esan, legeak berton egiten ziran, agintaritza geuk geukan, baiña gure eskubideak, apurka-apurka «foru» biurtu ziran eta foruak laterriaren ur garratzetan urtu ziran.

Sabin Arana izan zan erriaren egoera larria ikusita, lenengo askatasun osoaren deia egin ebana, eta laterriak nekez parkatu eutsoen pekatu aundi ori.

Sabin'en deiak, urteak joan, urteak etorri, bere frutua emon eban. Ez, zori txarrez, oraindiño be, antxiñako askatasun osoa lortzeko, baiña bai urteetan izan ez genduan geure Jaurlaritza, gobernu, izateko. Eta gobernu orretan, geure lendakaria be bai.

Lendakaria ez da antxiñako Jauna, beste gauza bat da, eta oraindiño ez dau iñoz aginpide bete-beterik izan, baiña euskaldunen-tzat norki ikusgarria ta maitagarria da.

Azkenengo gudea asita gero izan genduan lenengo lendakaria, Agirre maitagarria. Giro larri aretan, guda-giroan, Gernika'ko arizpean bere ziña egin eban, Donibaneko bere illobian irakurten diran berbak esanez.

Agirre joan eta bere orde z gaur erriratu jakun Leizaola jarri eben agintaritza orren buru lez.

* *

Gure Jaurlaritza erbestean izan zan aldi orretan irakurri genduan «De Gernika a Nueva York» Agi liburua. Guztiz gogoangarria, lenengo Lendakariak izan eban «Odisea» jakin gura dabe

Urte estu ta larri areitan Jaur-larritza orrek izan zituan adiskideak eta arerioak ugari.

Nork ez ditu gogoan aita Ola-so'ren berbaldi areik Londres'ko ta Paris'ko irratiatik? Demokra-ziaren eta erri-arazoaren ikuspegi jatorra agertzen zan berbaldi orrein bidez diktadurearen illunpe iguin-garri aretan.

Sarritan entzuna dogu baita, gure Agirre'k Parisen gero XXIII Jon Aita Santua izango zanagaz euki zituan artuemonak.

Itzaltasuna lortu eban gure Jaur-laritzak, euskaldunen izen onagaitik eta agiri ziran gizonen jafortasunagaitik.

Baiña itxaropenak luze urten eban eta gure gazteen eroapena amaitu zan. Ortik sortu ziran jokabide gogorak, georago ta gogoragoak.

* * *

Franco'ren eriotz-ostean giro barria sortu jakun eta astiro-astiro, errenka, urak euren bideetara urre dirala esan lei.

Guda-aldian legetua izan zan mailla aretara eldu gara gaur itxura dagonez. Orregaitik, Lendakaria barriro be Gernika'ko zuz-gazpean, bere lekuan dago.

Sarritan izan ditu gure Euskal-erriak aldakuntza aundiak, lanean antxiñako oletatik gaurko Laba Aundietara, nekazaritzan, etxegin-tzan...

Eta agintaritzak be izan ditu barrizkundeak: Batzarretan asi eta Jauna aukeratu arte, foruen egoera larrian asi eta, guda garratzaren ondoren, gaurko giro onetan Jaur-laritzaren sendotzea lortu arte.

Baiña beti geure askatasuna ta buru-jabetza aitzu berik.

ATSOLOORRA

PRAKAMAN

Markiña'ko errian, Prakaman eritxon gizon bat bizi zan: alper, zuri, itzi, baldin, gogaikarria.

An ebillen, non eztegua ta antxe, non batzarra ta barruan, non montxorra ta aurrenengo. Emakumeen artean be lotsa andi bagarik sartu oi zan.

ATSOLOORRA

Kortazarreneko Praiskak sein barri bat izan eban. Ta sendatu ta urrengo domekan, bere aide ta auzoko andrak etorri jakozan ikustalditxoa egitera.

Ta batak, ardaoa, besteak gozokia, emengoak txokolatea, angoak ogia ekarri eutsoezan, atsolorra jaia ospatuteko. Eta alan ifiotson ama barriari areitariko andra batek:

—Gaur ez jako parkatuko, ba'dator, Prakaman alper andi orreri.

—Neu ikustera etorri, ta kanpora jaurtiko ete jonagu?

—I, geldi-geldi egon... Neuk egingo jitudan emengo bearrak. Ekarki egidazue buztarri bat; eroaizue seiña kumatik oera; ta bere orde z kuman buztarria batu-

batu eginda ipiñiko jonagu, Praiska.

PRAKAMAN'EN ZURIKERIAK

Andik laster sartu zan Prakaman. An egozan orduko mai andi bi alkarren aurrean, biak zamau zuriz ederto jantziak, eta edariz, ogiz ta jakiz oparo beterik. Prakaman'ek eskuaz txapelari ikututxo bat eginda, esan eban:

—Jaungoiko santuak gaur lakoxe arratsalde on asko emon daiskula guztixoi; batez be geure etxekoandra neure eskola-lagun Praiskari, ta beronen seme usakume seinbarri erreka-ondoko Iora ederrari ta ama-semeak goratzera etorri garean guztixoi. Ara or, Mari Andres be, beti lakoxe galanta...

—Bai, emen najagok ni beti lakoxea. I ez az ba beti lakoa. Txikixa intzanean, gaur baiño zintzoagoa intzan bai, pizka bat.

—Mari Andres beti izan dot nik Balentzia'ko laranja lakoxea: azal mingots, barru gozo. Praiska: zeure ta jaiobarri onen osasunerako ardao tanta bat edan dagigun.

—Orretarako bai —esan eutsan Mari Andres'ek—, edateko obea az i lanean izerdia aterateko baiño. Seiña non dagoan begiratu be egin barik... !

—Mari Andres, ikusi ez ba'neu be, zer? Seme galanta, altara nagusiko aingeruak lakoxe berna lodi, papu gorri. Ez baiña uste, au gora-bera, umea ikusi ez dodanik. Aor dago, eder ori, kuman batu-batu eginda: surrean aita berbera da, bekokian ta espanetan ama dirudi, ta aitita lakoxe gizon galanta izango da ori, nire ustez.

KALE...!

Au entzun ebenean, atso neska guztiak algaraka asi ziran.

Bat baiño geiago saiatsari oratuta egozan barrearen-barrez arnasa artu eziñik.

Mari Andres'ek, orduan, seaskatik buztarria atara, ta Prakaman'en begi aurrean ipiñiz esan eutsan:

—Emen daukak sein eder, altarako aingeru henna lodien antzeko sein ederra. Begiratu ondo!

ESTONBA'tar Manuel'ek

ITZ LUZEAK

Undurraga'ko Leonor'i entzuna neban, berak eginiko odolestez saritua izango zala, itzik luzeena aurkituko eban naurkilaria.

Eta ni, ba, illeak lenagotik billaketan asita negoalarik, emen non dogun euzkerazko itzik pitxiena, luzea, ederra eta euzkera bizitik jasoa: «Hiruhaitaemezortzigarrenarekikoentzazkoa».

* * *

Ni neu, ba, etxeko eta adiskide aundia izateagaitik-edo, ezin izan dot odolestejaiian eskurik sartu.

Eta *Leonor'en aurrera* orri onegaz lenengo doakionarentzat, izango dauzan itaun bi jakin-arazoten dautsadaz.

Gorago aitaturiko itz pitxia euzkera bizitik artua dan ezker, euzkera illa zein dogu ba? Bigarrena: Nortzuk eta noiz il eben?

* * *

Ez dogu oraindiño euzkera illik.

Prailletzar iguingarri batek, oster, Bizkaia ta Zuberoa il-zori ateka estura garoazan arren.

* * *

Bulego, arrapostu, greba, bakantza, suposatu, segetari, hek eta nihoiz eta beste zenbait itz, hek eta nioiz alde batera itzirik euskaldunak diralako, zer egingo dogu aurretik diran sei itzakin?

Biziak, illak edo-ta euskaldunak ala erderazkoak ete doguz?

* * *

Euzkerarik asko dogu orain-eta, oiñarrizko ala goiarrizko ala naitaez danoi jan-arazoten dauskuena ete da, ba, oraingo euzkera muetetan !

Jango dauanari gaitzik ez dagiola-ta, janaren begira diranai, be, ontzat izan begioke.

LANDAJUELA'tar A'k

IZKI-NASTEAREN ERANTZUNA

E	D	E	R	N	I	Ñ	D	A	P	I	M	U	S	A
B	A	J	U	I	K	O	B	E	G	K	E	R	O	G
L	L	U	X	T	A	Z	U	B	I	A	U	R	R	E
I	O	K	R	I	X	E	G	A	D	M	X	T	A	K
A	K	A	R	T	E	T	A	D	I	S	O	A	B	I
L	U	N	I	R	M	I	J	I	K	E	R	R	U	M
E	S	T	O	Z	O	T	Z	U	L	L	R	A	J	A
P	A	S	B	A	R	G	T	A	L	O	A	N	E	Z
O	Ñ	B	A	R	R	U	E	Ñ	U	Z	D	O	S	T
J	E	X	P	O	J	B	A	L	O	T	S	A	N	I
A	Z	T	N	X	A	O	P	I	M	A	U	G	I	L

ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

***Olako eginbearrak artzera,
oitu zaitte.
Urte bi igaro baiño len,
lau laguntza barri.***

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen dauan laguntza-moltzo osotua-
goa eskintzea aitatzen dogunean, geuk daukaguzan
aurrerapen gurariai egitezko erantzuna emoteko baiet-
za agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezar-
teko libretak izan daitezcan.

Laguntza barria da ori eta laster emongo dogu-
zan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabaltze ta aldatze au, Biz-
kai'ko Aurrezki-Kutzak guztiontzat etorki-
zun ederrago bat egitea gura dauala
adiazoteko bidea izango da.

Etorkizuna, geroa, gaur asi bear do-
gu.

Biar emen izango da.



**BIZKAI'KO
AURREZKI KUTXA**

Geroa, bertan daukagu.

